

KIMIKA FAKULTATEAREN 50.

URTEURRENA

Otsaileko Jardueren Laburpena



Komunikabideetan egindako agerraldiak

Fakultatearen 50. urteurrena bi irratsaiotan jaso dute, Fakultatearen 50 urte hauen errepasoa egin dutelarik. Otsailaren 12an, Fakultateko bost ordezkariak parte hartu zuten Euskadi Irratiko Baipasa saioan, bertan Fakultateko iragana, oraina eta etorkizuna landuz. Hala, Antxon Santamaría, Jon Mattin Matxain eta Maddi Vicente Euskadi Irratiko Miramongo estudioetan zuzenean aritu ziren, eta Unai Ugalde eta Ana Arrieta etxetik. Fakultatearen 50 urteen ibilbide hau, arrakasta, erronka eta arazo desberdinekin, [esteka](#) honetan entzun daiteke, gutxi gorabehera 2:23:00etan hasita.



Otsailaren 17an, Iruñeako Euskalerrria Irratiko "Irrintzi Plaza" saioan Fakultatearen 50 urteko ibilbidearen errepasoa egin zen ere. [Esteka honetan](#) entzun daitekeen programan, Jon Mattin Matxain ohiko kolaboratzaileak Fakultateak izan dituen erronken berri eman zuen, baita kimikak pertsonen eguneroko bizitzan dituen aplikazioak eta gizartean duen eragina errepasatu ere.

Jon Mattin Matxain (EHU): "Kimikarik gabe ezingo ginateke hainbeste pertsona bizi munduan gaur egun"

Miren Mirogela Poirreña 2025ko ots. 17a, 19:28

Entzun ▶



Euskal Herriko Unibertsitateko Kimika fakultatearen 50. urteurrenaren harira Jon Mattin Matxain dekanoarekin zientziaren egungo erronkez mintzatu gara

Ospakizun bateratua: Emakumeak Zientzian

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2016. urtean otsailaren 11 [Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna](#) zela aldarrikatzea erabaki zuen, emakumeek eta neskek zientzian erabateko eta bidezko parte-hartzea izan dezaten. Testuinguru horretan sortu zen [Emakumeak Zientzian](#) 2017an, helburu hauekin: Zientzian diharduten emakumeen lana ikusaraztea, jarduera zientifiko-teknikoak gizonezkoen kontua direlako ustea apurtzea eta neskek zientziako ikasketak hauta ditzaten sustatzea



UPV/EHUko Kimika Fakultatea kolektiboaren kide aktiboetako bat da, eta Fakultatearen 50. urteurrena dela eta, Oihane Sanz Fakultateko irakaslearen esku geratu da koordinazioa. Horrez gain, 50. urteurrenaren harira hainbat ekitaldi egin dira. Batetik, Jakiunderekin elkarlanean, otsailean zehar Jakiunderen "24 Emakume" erakusketa gurean edukitzeko plazerra izan dugu. Bestalde, "Zientzialari bati elkarrizketa" lehiaketan, aurten, kimikariak izan dira parte hartu duten emakumeak.

Jakiunderen "24 Emakume" erakusketa




Jakiunde Euskal Herriko Zientzia, Arte eta Letren Akademia da, eta Fakultatearen 50. urteurreneko eragile kolaboratzaileetako bat. Bere helburuen artean ezagutza mota guztiak gizarte osoan zabaltzea dago. Hala, erakusketa ibiltaria du, **"24 emakume"**, herrialdeko esparru ezberdinetako 24 emakumeren lana erakusgai jartzen duena. Erakusketa Fakultateko sarrera nagusiaren aurrean egon zen otsailaren 3tik martxoaren 5era.



"Zientzialari bati elkarritzeta" Lehiaketa

Aurten "Zientzialari bati elkarritzeta" Lehiaketaren 4. edizioa ospatu da. Parte-hartzeak aurreko errekorra hautsi du, guztira 13 ikastetxek hartu dute parte aurten, eta guztira 69 elkarritzeta egin zaizkie Fakultateko 21 kimikariri.



Ilusioz beteta iritsi ziren zazpi talde finalistak otsailaren 14an egin eta Fakultateko Berdintasun Batzordeak antolatutako sari banaketara. Arratsalde zirrargarri hartan sari banaketa ekitaldia honakoa izan zen:

- **Poster Onenaren Saria:** Zumadi Eskola. Unax, Alaitz, Beñat eta Amaia. Elkarrizketatua: Hannae Boulehjour
- **Poster profesionalaren saria:** Ekintza Ikastola. Laia, Aritz eta Mateo. Elkarrizketatua: Itziar Otaegi
- **Poster artistikoenaren saria:** Beasaingo LaSalle Ikastetxea. Malen, María, Larrun, Alaia eta Ekain. Elkarrizketatua: Ariadna Pazos.



Eguna jendez eta ilusioz gainezka eta bete zen, ondoko irudietan ikus daitekeen moduan:





Fakultatetik, parte hartzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, eta espero dugu datorren urtean parte hartzera ikertzaile eta hezkuntza zentro gehiago animatzea. Gora Emakumeak Zientzian!

Zientzia Zabalkuntza Jarduerak

12 Hilabete – 12 Gai

Hilero, Fakultatearen jarduerarekin lotutako dibulgazio-gai bat izango dugu Fakultatean. Otsailean *“Polimeroen fama, merezita?”* izan zen gaia. Ekimen honen baitan, hilero jarduera desberdinak burutuko dira.

Hitzaldi Zikloa Donostia Kulturarekin: Hilabeteko gaiaren lotuta, udako hilabeteteetan ezik “50 Urte Kimika Zabaltzen” hitzaldi zikloa burutzen ari da. Donostia Kulturarekin batera antolatuta Ernest Lluch Kulturetxean. MFZko komunikazio arduradunak, Idoia Mugikak, aurkezten du zikloa. Testuinguru honetan kokatzen da otsailaren 11an Jose Maria Asuak emandako hitzaldia: *“Los polímeros: el material más versátil que existe”*. Arrakasta handiko hitzaldia izan zen, irudietan ikus daitekeen moduan.



Zabalkuntza Bideoak: Aipatutako jardueretako bat Fakultatearen jarduerak sustatzeko zabalkuntza bideoak egitea da. UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko CIDIREko langileek egindako bideo hauek Fakultateko [Vimeoko kanal espezifikoan](#) argitaratuko dira. Otsaileko bideoa [esteka](#) honetan ikus daiteke.

UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren blogak: Beste jarduera bat UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren blogetan artikulua argitaratzea da. Lanak Zientzia Kaiera euskarazko blogean eta gaztelaniazko Cuaderno de Cultura Científica blogean argitaratuko dira. Orain arte argitaratutako artikulua guztiak [esteka honetan](#) ikus daitezke. Cuaderno de Cultura Científica blogean argitaratutako otsaileko artikulua [hemen](#) irakur daiteke.

Irratsaioak: La Mecánica del Caracol bezalako irratsaioak izango dira Fakultateko jarduerak zabaltzeko beste kanal bat. Otsaileko gaia mintzagai izan zen Eva Caballerorekin batera Radio Euskadin. Elkarrietzeta horretan, Jose Maria Asuak "50 Urte Kimika Zabaltzen" zikloko hitzaldiari buruz aritu zen. Elkarrietzeta [hemen](#) entzun daiteke. Bestalde, orain arteko elkarrietzeta guztiak [esteka honetan](#) bilduta daude.

Zabalkuntza – Orientazio Jarduerak

Bisita gidatuak

2025ko hilabete guztietan, udako hilabeteetan ezik, bisita gidatuak burutuko dira Fakultatean. Egutegi osoa beheko irudian ikusgai dago.

Enero 2025	Febrero 2025	Marzo 2025	Julio 2025	Agosto 2025	Septiembre 2025
Abril 2025	Mayo 2025	Junio 2025	Octubre 2025	Noviembre 2025	Diciembre 2025

Otsailaren 26an Batxilergoko bi ikastetxeren bisita jaso genuen, bi txandatan banatuta. Lehenengoan, 9:30etik 11:30era, Tolosako Laskorain Ikastolako 48 ikasle eta hiru irakasleren bisita jaso genuen. Geroago, 12:00etatik 14:00etara, Donostiako Jesuitak-eko bi irakaslek lagunduta 32 ikasleren bisita jaso genuen. Bi programak hurrengo orrialdean ikus daitezke.

Bisita Gidatuak
2025ko Otsaila

#kiffadossio
Kimika Fakultatearen
50. Urteurrena

Egutegia

PROGRAMA

9:30: Ongi etorria eta aurkezpena
Kimika Fakultateko Ekitaldi Aretoa

1 Taldea
9:50: Esperimentua Geologia I Laborategian
Semaforo Kimikoa
10:35: Ikerketa Laborategiaren bisita
Kimika Organikoa
11:00: Azpiegitura Laborategiaren bisita
Gainazalen elektrokimika

2 Taldea
9:50: Esperimentua Geologia II Laborategian
Su artifizialen koloreak
10:35: Azpiegitura Laborategiaren bisita
Polimeroen Teknologia
11:00: Ikerketa Laborategiaren bisita
Biokimika

3 Taldea
9:50: Esperimentua K. Ezorganikoaren Laborategian
Metalen identifikazioa
10:35: Ikerketa Laborategiaren bisita
Polimero Jasangarriak
11:00: Azpiegitura Laborategiaren bisita
Erresonantzia Magnetiko Nuklearra
11:20: Agurra
Kimika Fakultateko Ekitaldi Aretoa

TRANSFERTENTZIA
urt
ots
mar
api
mai
eka
uzt
abu
ira
urr
aza
abe

IKERTETA
ORIENTAZIOA

DIBULGAZIOA

QR Code

Bisita Gidatuak
2025ko Otsaila

#kiffadossio
Kimika Fakultatearen
50. Urteurrena

Egutegia

PROGRAMA

12:00: Ongi etorria eta aurkezpena
Kimika Fakultateko Ekitaldi Aretoa

1 Taldea
12:20: Esperimentua Geologia I Laborategian
Semaforo kimikoa
12:05: Ikerketa Laborategiaren bisita
Kimika Organikoa
13:30: Azpiegitura Laborategiaren bisita
Gainazalen elektrokimika

2 Taldea
12:20: Esperimentua Geologia II Laborategian
Su artifizialen koloreak
13:05: Azpiegitura Laborategiaren bisita
Polimeroen Teknologia
13:30: Ikerketa Laborategiaren bisita
Biokimika

3 Taldea
12:20: Esperimentua K. Ezorganikoaren Laborategian
Metalen identifikazioa
13:05: Ikerketa Laborategiaren bisita
Polimero Jasangarriak
13:30: Azpiegitura Laborategiaren bisita
Erresonantzia Magnetiko Nuklearra
13:50: Agurra
Kimika Fakultateko Ekitaldi Aretoa

TRANSFERTENTZIA
urt
ots
mar
api
mai
eka
uzt
abu
ira
urr
aza
abe

IKERTETA
ORIENTAZIOA



DIBULGAZIOA

QR Code

Bi bisitak patxadaz eta ordena onean joan ziren, eta eguna oso ongi baloratu zuten bisitariek zein bisitatuak. Aipatzekoa da saio hauetan parte hartu zuten ikasleei egindako inkesten arabera, jardueraren balorazio orokorra, 91 erantzunekin, 4,32tik 5ekoa izan zela.

Mila esker boluntario guztiei!!! Egun eder honen irudi batzuk uzten dizkizuegu guztiontzat.






Ikerketa Jarduerak

Nazario Martínen Hitzaldia

Otsailaren 28an Nazario Martinek Fakultatea bisitatu zuen, Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren Kimika Katedraduna, eta IMDEA Nanozientziako Zuzendariordea.



"Molecular Nanographenes: the search for enantioselectivity" izenburua zuen Hitzaldiak, eta Juan Luis Delgadok (POLYMAT eta Fakultateko Ikerbasque Ikertzailea) eta Fernando Cossíok (Fakultateko Kimika Organikoaren Katedraduna eta Ikerbasqueko Zuzendari Zientifikoa) antolatu zuten.



Kolaboratzaileak eta Patrozinatzaileak

Kolaboratzaileen eta babesleen zerrendak hazten jarraitzen du hilabetez hilabete. Eragile kopurua urte amaierara arte hazten jarraitzea espero dugu.

UPV/EHU

- UPV/EHUko Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetza
- UPV/EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza
- UPV/EHUko Ikerketa Errektoreordetza
- UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza
- UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedra

Ikerketa eta Transferentzia Eragileak

- Ikerbasque: Basque Foundation for Science
- Donostia International Physics Center
- Centro de Física de Materiales / Materialen Fisika Zentrua
- POLYMAT
- CIC BiomaGUNE
- CIC NanoGUNE
- IIS BioGipuzkoa
- CIDETEC
- Donostia Sustapena

Enpresak

- OPPAC
- Oribay
- Burdinola
- Ikerlat
- Merck
- Scharlab

Kimikako eragileak

- Euskal Herriko, Burgos eta Errioxako Kimika eta Ingeniaritza Kimikoaren Elkargo Ofiziala
- Real Sociedad Española de Química
- Real Sociedad Española de Química. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Atala

Gizarte, Kultura eta Ezagutza Zabalkuntzaren inguruko eragileak

- Jakiunde
- Emakumeak Zientzian

- Donostia Kultura
- La Mecánica del Caracol (Radio Euskadi)
- AGIJUPENS Erretiratu eta pentsiodunen gizarte zentroen Gipuzkoako federazioa
- Bergarako Laboratorium Museoa
- Udako Euskal Unibertsitatea UEU Universidad Vasca de Verano
- Elhuyar Fundazioa

Bigarren Hezkuntzako eragileak

- Colegio SUMMA Aldapeta Ikastetxea
- CIFP Don Bosco LHII
- Tolosaldea LHII
- Ikastola Elkarteak